

COVID enbatan ez hondoratzeko flotagailua

Haurreskolak Partzuergoa

Oharra: Jarraibideak etengabe aldatzen ari dira, beraz aldatetak jaso heinean gure dokumentua eguneratuko dugu.

Azken eguneratze data: 2020ko urriaren 6a.

1. Langile baten zaugarritasuna baloratzeko jarraitu beharreko pausuak

→ Partzuergoko Prebentzio departamentura emaila bidali zaugarritasun egoeran zaudela esanez eta IMQ Prebentzioak balorazioa egitea nahi duzula.

→ IMQ Prebentziara emailaz mediku espezialistaren edota familia medikuaren txostena bidali.

→ IMQ Prebentzioak balorazioaren emaitza helaraziko dizu eta egin beharrekoa esango dizu.



2. Zein prozedura jarraitu behar da hezitzaile/kudeaketa langileen seme-alabek COVID sintomak izatekotan?

A. Seme-alaba kasu POSIBLEA da (PCRaren emaitzaren zain), ageriko sintomak ditu

Haurreskolak Partzuergoan gurasoaren ausentzia justifikatzeko (umearen PCR froga egin arte) familia-medikuaren egiaztagiri bat bidali behar da Haurreskolak Partzuergoko Pertsonal Zerbitzura.

Familia-medikuaren egiaztagiri hori lortzeko, pediatarren dokumentu bat aurkeztu behar zaio, honako mezua adierazten duena; "Umea COVIDarekin kutsatu izanaren susmo sendoa dago".

B. Seme-alaba kasu POSITIBOA da (PCR+)

Seme-alaba positiboa bada, gurasoek PCRaren emaitzak jaso bitartean edo baja eskuratu bitartean, justifikatuztat jotzen da lanera ez joatea. Medikuen hitzorduaren kopia aurkeztu beharko da.

C. Seme-alabaren gelakide batek POSITIBO eman du

Seme-alabarekin kontaktu zuzena izan duenez, etxean egon beharko du berrogeialdia betetzen, gurasoek aldiz lanera joan beharko dute, ez baitzaie bajarik emango.

D. Seme-alabaren gelakide bat kasu POSIBLEA da (konfirmatu gabe)


Gurasoei ez zaie bajarik emango.



3. Zein prozedura jarraitu egoera desberdin bakoitzean


COVID19aren SINTOMA NAGUSIAK:
- Temperatura >37°
- Eztula
- Arnasa hartzeko zailtasuna
Beste sintoma batzuk:
- Eztarriko mina
- Usaimena galtzea

Zer egin haur batek COVID 19arekin kontaktua izan duenean?



Zer egin hezitzaile batek COVID 19 sintomak dituzenean?

COVID19rekin bateragarriak diren sintomak badaude, KASU SUSMAGARRITZAT hartuko da.




- Ziurtatu maskara behar bezala jarrita daramazula eta higie-neurriak zorrotzu.
- Abisatu **haurreskolako koordinatzaileari**.
- Joan zaitez etxera. Zirkunstantziaren bat dela-eta une horretan haurreskola utzi ezin baduzu, **isolamendu-gelan** isolatu behar duzu. Aretoa aireztatuta eduki kanpoalderantz, barruan dagoen bitartean.
- Haurreskolak Partzuergoko langilea bada, koordinatzailea prebentzio zerbitzuarekin harremanetan jarriko da (koronabirusa@haurreskolak.eus) eta azken hau Medikuko Arloarekin harremanetan jarriko da.
- Enpresa bateko edo Administrazio Orokorreko langilea bazara, jakinaraz izaziozue dagokion prebentzio-zerbitzuari, eta zure zentzuetatik Lan Arriskuen Prebentziarako Zerbitzuko Medikuko Arloarekin harremanetan jarriko da.
- **Honako neurri hauek hartu:**
 - Isolamenduan egon behar du bere etxean, kalera irten gabe eta bisitarik jaso gabe.
 - Eskuetako higie, arnas higie eta etxean infekzioaren transmisioa prebentzeko neurriak zorrotzu behar dituzu, COVID19 diagnostikoa berretsi/baztertu arte.
 - Sintomen bilakaera zaindu behar du.
 - Zalantzarik izanez gero, deitu osasun-aholkura: 900 20 30 50.

- Ez joan haurreskolara.
- Haurreskolako koordinatzaileari abisatu, honek prebentzio zerbitzuari jakinaraziko dio (koronabirusa@haurreskolak.eus). Azken honek Medikuko Arloarekin harremanetan jarriko da.
- **Honako neurri hauek hartu:**
 - Isolamenduan egon behar du bere etxean, kalera irten gabe eta bisitarik jaso gabe.
 - Eskuetako higie, arnas higie eta etxean infekzioaren transmisioa prebentzeko neurriak zorrotzu behar dituzte, COVID19 diagnostikoa berretsi/baztertu arte.
 - Sintomen bilakaera zaindu behar da.
 - Zalantzarik izanez gero, deitu osasun-aholkura: 900 20 30 50.

Kasuaren emaitza diagnostikoa lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta haurreskolako jardura higie-neurriak zorrotzen jarraituko du.

Zer egin haur batek COVID 19 sintomak dituzenean?

COVID19rekin bateragarriak diren sintomak badaude, KASU SUSMAGARRITZAT hartuko da.



- **Isolamendu-gelara bidali:**
 - Hezitzailea maskara jarrita duela ziurtatzea.
 - Segurtasun-distantzia gorde.
 - Aretoa kanporantz aireztatuta eduki, barruan dauden bitartean.
- Haurreskolako koordinatzaileari jakinaraziko dio, eta honek Haurreskolak Partzuergoko prebentzio zerbitzuari (koronabirusa@haurreskolak.eus).
- Haurreskolako koordinatzaileak familiari jakinaraziko dio.
- **Familiari honako neurri hauen berri eman:**
 - Osasun Zentrora deitu behar dute.
 - Haurra isolatuta egon behar da etxean, kalera atera gabe eta bisitarik jaso gabe.
 - Eskuetako higie, arnas higie eta etxean infekzioaren transmisioa prebentzeko neurriak zorrotzu behar dituzte, Covid19 diagnostikoa berretsi/baztertu arte.
 - Sintomen bilakaera zaindu behar dute.
 - Haurra ez da haurreskolara joango osasun-sistemak egoera baloratu eta egokituz jo arte. Zalantzarik izanez gero, deitu osasun-aholkura 900 20 30 50.

- Haurra ez da haurreskolara joango osasun-sistemak egoera baloratu eta egokituz jo arte.
- Familiari absentiaren berri emango dio haurreskolako koordinatzaileari.
- **Familiari honako neurri hauen berri eman:**
 - Telefonoz deitu behar dute osasun-zentrora.
 - Haurrak isolatuta egon behar du bere etxean, kalera irten gabe eta bisitarik jaso gabe.
 - Eskuetako higie, arnas higie eta etxean infekzioaren transmisioa prebentzeko neurriak zorrotzu behar dituzte, Covid19 diagnostikoa berretsi/baztertu arte.
 - Sintomen bilakaera zaindu behar dute.
 - Haurra ez da haurreskolara joango osasun-sistemak egoera baloratu eta egokituz jo arte. Zalantzarik izanez gero, deitu osasun-aholkura 900 20 30 50.

Kasuaren emaitza diagnostikoa lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta haurreskolako jardura normaltasunez jarraituko du, higie-neurriak zorrotzuz.

4. Haurreskolan eman daitezkeen COVID-19ak sortutako kasuak jakinarazteko egokitutako erakunde sanitario integratua (ESI)

Haurreskolako ordutegian kasu positibo bat detektatzen denean koordinatzaileak edota covid arduradunak jakinarazpena egin beharko du egokitu zaien ESIan, baita Haurreskolak Partzuergoko prebentzio zerbitzuan ere. ESIko koordinatzaileak adieraziko dio eskusiboki koordinatzaile edota covid arduradunari zer jarraibide jarraitu behar dituen, azken honek, adierazitako jarraibideak Haurreskolak Partzuergoko prebentzio sailari jakinaraziz.

zenbakia zein helbide elektronikoa mugikorretan gorde dezaten, eta berari "WhatsApp" bat bidaltzea zein zaretan esanez berak zuen kontaktua gorde dadin (Izen-Abizenak eta haurreskolaren izena). Aipatutakoa koordinatzaile guztiak egin beharko dute, haurreskolan covid kasurik egon ala ez.

Haurreskolako ordutegi zein egutegitik kanpo positiboren bat detektatzean, Haurreskolak Partzuergoko gerentea den Zorione Etxezarragari jakinarazi beharko zaio telefonoz.

2. Kasu positibo baten berri haurreskolako koordinatzaileak jakinarazten du:

Haurreskolatako koordinatzaile batek kasu positibo baten berri baldin badu (hezitzailea zein haurra izanda positiboa eman duena) Haurreskolak Partzuergoko gerenteari jakinarazi beharko dio aipatutako telefono zenbakian "WhatsApp"-a bidalita eman eta bete beharreko pausu zein jakinarazpenak lehenbailehen abian jartzeko.

1. Kasu positibo baten berri ESIn aldetik jasotzen da:

ESIn Haurreskolak Partzuergoko gerenteari harremanetan jarriko da, eta azken hau zuzenean haurreskolako koordinatzailearekin, eman beharreko pausuak lehenbailehen abian jartzeko.

Mezuan izen-abizenak eta haurreskolaren izena zehaztu beharko dira, ondoren gertatutakoaren azalduz besteak beste.

Prozesu hau behar bezala aurrera eramateko, haurreskolatako koordinatzaileei eskatzen zaie Zorione Etxezarragaren telefonoa

Positibo bat dagoenean:

- Haurren rastrea edo jarraipena ESIk egingo du.
- Hezitzaileen rastrea edo jarraipena IMQk egingo du.

5. Baimenak

Seme-alaba berrogeialdian dagoenean baina gurasoei bajarik ematen ez zaienean, norberaren eginkizunetarako baimena eskatu ahal izango da. Baimen hau momentu honetan egin batetik bestera kudeatu daiteke.

6. Eskatzen dugu



- Kontingententzia planak behar bezala aurrera eramanez gaitzeko ordezkapen guztiak lehen egunetik betetzea eta behar beste langileen kontratazioak gauzatzea.
- Haurreskolatan behar beste prebentzio material erosteko haina diru sarrera jasotzea, hezitzaileek beraien dirua ez aurreratzeko.
- COVID arduradunei lana behar bezala betzeko orduak ematea.
- Nahitaezko betebeharragatik baimen ordaindua, 14 urtetik beherako pertsonak edo mendekotasun egoeran dagoen norbait zurekin bizi bada, eta nahitaezko konfinamendu agindua edukita, kontziliazioa eratzeko ezinbestekoa iruditzen zaigu neurri hori ezartzea.

